

Mundu mailako izen handiko ikertzaileak, CIC biomaGUNEren ikerketa-jarduera ebaluatzen

CIC biomaGUNEko hamabi ikerketa-taldeak ikustatuko dituzte gaur eta bihar Kanpo Ebaluazioko Batzordea osatzen duten nazioarteko goi-mailako zazpi zientzialarik

Ikerketa-zentroak 2018-2021 bitartean izan duen ekoizpen zientifikoa aztertuko dute, eta etorkizunerako lan-ildo estrategikoak diseinatzen lagunduko

Donostian, 2021eko irailaren 27an. Kanpo Ebaluazioko Nazioarteko Batzorde Zientifikoaren IV. Bilera ([International Scientific Advisory Board](#)-ISAB) izango da CIC biomaGUNE gaur eta bihar. Ikerketa-zentroaren ekoizpen zientifiko eta teknologikoak izan duen garapena aldian-aldian aztertzeaz eta baloratzeaz arduratzen den kanpo-organo independentea da. Egonaldi honetan, CIC biomaGUNEko hamabi ikerketa-taldeek azken hiru urteotan izan duten jarduera zientifikoa ebaluatuko du Batzordeak; halaber, denbora-tarte horretan lortutako aurrerapenak aztertu eta etorkizunerako lan-ildo estrategikoak diseinatzen lagunduko du.

Batzordea osatzen duten zazpi ikertzaileak ikerketa-zentro honetan egiten den ikerketarekin lotutako esparruetan aritzen dira eta mundu mailako entzutea dute. Hauek dira: [Aránzazu del Campo](#), Saarbrückenek Material Berrietarako Leibniz Zentroko zuzendaria (Alemania) eta Sarreko Unibertsitateko Materialen Sintesiaren katedraren titularra; [Peter Morris](#), Nottinghameko Unibertsitateko Sir Peter Mansfield Erresonantzia Magnetikoko Zentroko ikertzailea (Erresuma Batua); [Mónica Olvera de la Cruz](#), Material Bigunen Konputazioa eta Teoria Zentroko zuzendaria eta Northwesterneko Unibertsitateko Materialen Zientzia eta Ingeniaritza eta Kimikako katedraduna (AEB); [Itamar Willner](#), Jerusalemgo Unibertsitate Hebrearreko Kimika Institutuko irakaslea (Israel); [Peter Seeberger](#), Koloide eta Interfaseen Max Planck Institutuko zuzendaria (Alemania); [Samuel I. Stupp](#), Northwesterneko Unibertsitateko Ingeniaritza Biomedikoko irakaslea eta Simpson Querrey Institutuko zuzendaria (AEB); eta [Patrick Couvreur](#), Paris-Saclay Unibertsitateko Farmaziako irakaslea eta Collège de Franceko Berrikuntza teknologikoko katedraren titularra.

“Beren ikerketa-esparruetan gailentzen dira batzordea osatzen duten ikertzaile guztiak, eta gure ikerketa-zentroan egiten dugun lana bultzatzeko konpromisoa hartzen dute, beren ikuspegi bikain eta begirada kritikoa eskainiz beti eta beren ikerketa-zentroetan dituzten egitekoak egun batzuetan alde batera utziz —dio CIC biomaGUNEko zuzendari zientifiko Luis M. Liz Marzánek—. Atsegin handiz hartzen ditugu biomaGUNE, batzordearen azken gomendioen arabera hiru urteotan egindako ibilbidea erakusteko”.

Bi egunez, Luis M. Liz Marzán Ikerbasque irakaslea (zentroko zuzendari zientifikoa), Aitziber L. Cortajarena Ikerbasque irakaslea (zuzendariorde zientifikoa) eta Jose María Mato doktorea (zuzendari nagusia) bidelagun izango ditu batzordeak CIC biomaGUNEko laborategien ikerketa-ildoak ebaluatzeko lanetan. Nazioarteko espazio dinamikoak dira laborategiok, eta kimikaren, fisikaren eta biologiarenekin muga goi-mailako ikerketak egiten dituzte, arreta berezia jarri

nanoegitura eta biomaterialen propietateak eta horiek biomedikuntzan izan ditzaketen aplikazioak aztertzeko; dagozkien arlo zientifikoetan munduko onenen artean daude, eta laborategietako taldeburuek haietan lantzen dituzten ikerketa-ildoak aurkeztuko dizkiete batzordeko kideei.

Sari eta nazioarteko aintzatespen ugari hirurtekoa

Bai Luis M. Liz Marzánek bai Aitziber L. Cortajarenak adierazi dute pandemiak markatutako azken bi urte hauek ez direla oztopo izan arrakastaz beteriko bidean aurrera egiteko. Zenbait mugarri nabarmentzen dituzte biek, eta nagusiki María de Maeztu Bikaintasun Unitate gisa jaso duten aitorpena, Espainiako bikaintasun zientifikoaren aitorpen gorena. Halaber, “gure ikertzaileen ekoizpen zientifikoak kalitate eta inpaktu nabarmena izaten jarraitzen du. 2018-2021 bitartean, 579 artikulua argitaratu ziren (eta urtean 7.000 aipamenetik gora lortu); 10 patente-eskari egin ziren, 2 patente esleitu ziren, eta ustiatzeko 6 patente lizentziatu ziren. Horrez gainera, 100 ikerketa-hitzarmen sinatu ditugu enpresekin eta kanpo-bazkideekin”, erantsi dute.

I+Garen jardueraren berri ematen du, bestalde, zentroak bultzatutako beka- eta kontratukopuruak: 140 proiektu berrik 28,9 M€-ko ekarpena eragin dute guztira. Bestalde, CICbiomaGUNEk EBko oso laguntza lehiakorrak jaso ditu (FET-OPEN, Graphene Flagship, MCSA, etab.), baita AEBko Osasun Institutu Nazionalen finantziazioa, bi ERC-Advanced Grant berri, ERC-Consolidator Grant bat eta ERC-Proof of Concept bat ere, zeinak aurrez onartutako beste hiru ERC Granti gehitzen baitzaizkie. Gainera, ikerketa-zentroak 5,9 M€ lortu ditu finantziatuturri pribatuetatik.

“Sari garrantzitsuen eskutik dator gure ikertzaileen bikaintasun akademikoaren nazioarteko aitorpena (besteak beste, Ikerketa Sari Nazionala, Ikerketa Biomedikoko Lilly Saria, RSCren Materialen Kimika Dibisioaren Horizon Saria, ohorezko doktoretzak eta hiru taldeburu oso ikertzaile aipatutzat jotzen dituen aintzatespena); horren adierazgarri da orobat nazioarteko biltzarretan hitzaldiak emateko gonbidatuta egindako ekarpen ugariak”, adierazi dute.

CICbiomaGUNEri buruz

CICbiomaGUNE biomaterialen alorreko ikerketa kooperatiboko zentroak, zeina Basque Research and Technology Allianceko ([BRTA](#)) kide baita, punta-puntako ikerkuntza egiten du Kimikaren, Biologiaren eta Fisikaren arteko eremuan. 2018an, “María de Maeztu” Bikaintasun Unitate izaera aitortu zioten bikaintasun-baldintzak betetzeagatik, zeintzuen bereizgarri baita dagokion jarduera-esparruan inpaktu handia eragitea eta lehiakortasun-maila handia izatea mundu mailako zientzian.